

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urriaren 22a / 691. zenbakia



MOTO-KROSA, DOMEKAN

Mojategiko zirkuituan izango dira
lasterketak, 16:00etan hasita

ORAIN ETA HEMEN: ETXE HUTSEN ALOKAIRUA/6 • KULTURA: AUKERAN DANTZA TALDEA/11

AZALA: ALEX AZKARATE

EDERTASUN GIDA/20

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 22
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

ZAPATUA, 23
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99

DOMEKA, 24
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26

ASTELEHENA, 25
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39

MARTITZENA, 26
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74

EGUAZTENA, 27
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65

EGUENA, 28
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

EGUBAKOITZA, 29
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

Arrasate
Astelohenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Especialitateak 943 03 53 11
- Ikuskatzailea 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

ERTZAINZIA
Arrasate 943 79 71 99

SUHILTAILEAK
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

MATXURAK
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 meza nagusia (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	San Isidro eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Domeka 12:30 (elebiduna)

OHARRAK

1953AN JAIOTAKOAK
1953an jaiotako gizonezkoek eta emakumezkoek jaia egingo dute azaroaren 6an. San Juan Bataiatzailearen elizan meza entzungo dute, eta Saran bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. Autobusez igotzeko aukera izango da. Interesatuak Euskadiko Kutxan 50 euro sartu beharko dituzte, azaroaren 3a aurretik. Informazio gehiago: 645 00 91 32. Pello Gonzalez.

1954AN JAIOTAKOAK
1954an jaiotako gizonezko eta emakumezko arrasatearrek jaia egingo dute azaroaren 13an. Interesatuak urriaren 30a aurretik eman beharko dute izena, eta 50 euro ordaindu Euskadiko Kutxan.

TRIKITIXA ESKOLA
Trikitixa Eskolak aditzera eman du oraindik aukera dagoela soinu eta pandero eskolak hartzeko. Interesatuak Zerrajerako eraikuntza zaharrera jo beharko dute martitzen edo eguenean, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

BIODANTZA IKASTAROA
Yoga Elkarteak biodantza ikastaroan izena emateko epea zabaldu du. Interesatuak deitu, lehenbailehen, 679 44 12 29 zenbakira.

AEDren AGENDA

GAUR, EGUBAKOITZA, KOKEIN MUSIKA TALDEA GAZTETXEAN
Gaur, egubakoitza, Kokein musika taldeak kontzertua egingo du gaztetxean, 22:30ean. Kultur Errotak eta AEDk antolatuta.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Gorostiza baserria, monumentu izendatuta


Uribarri auzoko Gorostiza baserria monumentu izendatu eta euskal kultur ondarearen zerrenda orokorrean sartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Baserriaren balio historikoagatik eta kulturalki duen interesa ikusita hartu zuten erabaki hori. Erdi Aroko dorre-teen ezaugarriak ditu.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


“Gizonkerixa”

Gixonkerixak egin nahi dittuenaren iharduera.
— Purua erre, pattarra eran... gixonkerixak eitteb ibili zan gure mutikua, ta gero botaka.



JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Metodologiaren geltokian Pello Zabalak kontatutako ilargiaren sekretuak asteburuan

Hamabostean behin, Arantzazurako bidea hartzen du 107.7ko autobusak. Izan ere, han du eta Metereologiaren geltokia. Pello Zabalarekin elkartzen gara bitxikeria interesgarriak ikasteko.

Aste honetako geltokian ilargiaren sekretuak kontatu dizkigu Pellok; izan ere, uste baino handiagoa da ilargiak gugan duen eragina: adibidez, argaltzeko dieta bat hasi aurretik ilargia zein fase-tan dagoen jakitea oso garrantzitsua dela esan digu Zabalak. Asteburuko gainbegiratuan,

Pellok kontatutakoak berreskuratuko ditugu zuentzat.

Horretaz gain, zine kontuetarako ere izango dugu asteburuan tartea. Bergarako zinegile Asier Altuna errodatu berri duen *Aupa Etxebeste* filmaren muntaia lanetan aurkitu digu.

Bergarako dantzari Edu Muruamendiarezek zuzentzen duen Aukeran dantza taldeak Filipinasera egindako bidaiaren kontakizuna ere entzuteko aukera izango duzue, zapatuan eta domekan, 10:00etan.

HAUGIROA!

MINIMOA
Zapatua, 16 **8 °C**

MAXIMOA
Martitzena, 19 **24 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **66,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 13	21 °C	8 °C	6,2 l/m ²
Eguena, 14	20 °C	10 °C	0,3 l/m ²
Egubakoitza, 15	12 °C	8 °C	35,9 l/m ²
Zapatua, 16	12 °C	8 °C	17,6 l/m ²
Domeka, 17	16 °C	8 °C	0,1 l/m ²
Astelehena, 18	20 °C	9 °C	6,3 l/m ²
Martitzena, 19	24 °C	14 °C	0,5 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Pello Zabala, ilargiaren gainean; Asier Altuna zinegilea, *Aupa Etxebeste* filmaz; Edu Muruamendiarez dantzaria, Filipinasko bidaiaz...

DOMEKA
10:00 **Asteko gainbegiratu**.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!** Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landu). Elkarrizketak. Danbakaren geltokia. Ibilu munduan geltokia. Zozketak, etab...

11:05 **Musika**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:20 **Zorion agurren tartea.**


12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**

14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Iraultza-inpuestue pagetie delitue da. Ze pentsetan jatzu?



FRANCISCO ANSUATEGI
Langillie



JOSEBA AREXOLALEIBA
Langillie



AITOR YAÑEZ
Ikaslie



NEKANE LOPEZ
Langillie



KORO GARMENDIA
Langillie



AMAIA ZUBIA
Ikaslie

Neure ustez hori ez da delitue; izen be, hori pagau biher dauen pertsonie obligate dau hori pagetan. Sukaldarixen kontue Euskal Herrixen kontra egitteko beste kanpaina bat da.

Neure ustez ez da delitue. Alde baten dauketzu batzuk, eta bestien beste batzuk. *Entre la espada y la pared* esaten jako horri. Pagetan badaue da euren bizitza jokuen dauelako.

Gure neuke ikusi hori delitue dala esaten dauena egoera horretan, eta galdetu orduen ze pentsetan dauen. Neu holaxe egongo banitz, ez litxakit inportauko bestiek ze esaten dauen.

Ez dakit delitue dan, baiñe argi dauketena da ez dala bape justue. Pertsonie amenazate badau, normala da pagetie. Hori Gobierno-kuek be egin izen daue, beste kasu batzuetan.

Neure ustez ez da delitue, eta oso injustue da, gaine-ra. Amenazate dauenak ez dauko zerikusirik, horma kontra dauen biktima bat da; ez dau holakorik egin gure, baiñe behartute dau.

Ez jat pentsetan hori justue danik. Alde batetik, iraultza-inpuestue pagetako amenazetan daue, eta bestetik, Estatuak hori delitue dala esaten dau. Hori ez da bape justue.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ANTZOKIA ZABALTZEKO ZAIN Domekan, Kanpingas taldearen ikuskizunean antzokia bete egin zen eta ikusle gehienak oso gustura irten ziren. Baina batzuek aditzera eman digute bi kexa dituztela: bata, txarteldegia ikuskizuna hasi baino ordu erdi lehenago zabaldu zutela; bestea, antzokiko ateak 19:40ak arte ez zituztela zabaldu. 19:30ean iragarrita zegoen, eta ilara Maalako biribilguneraino heldu zen.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KULTURA /10

GAZTEAK /13

Anbulatorioko lanak

Hirugarren solairuko kontsul-tak-eta berritu ostean, bigarren solairua eraldatzen hasiko dira

Patxi Goikoleari elkarrizketa

Patxi Goikoleari elkarrizketa egin diogu Euskal Herriko lehenengo bertso eskolaren gainean.

XVIII. Arrasate Lehiaketak

AEDk zabaldu du XVIII. Arrasate Lehiaketetan esku hartzeko epea. Otsailean bukatuko da epe hori.

ASTEKODATUA

80

METRO KOADROKO ORTUAK EGIN GURA DITUZTE

Arteagarako bidearen ondoko lursaila egokitu eta ortuak egokitu gura ditu Udalak herriko erretiratuendako. Orain hasiko dira proiektua egiten. Abendurako bukatuko dute.

BESTEKEESANA

“Askotan itsasora joaten garenean ez da olatu egokirik egoten. Joan garen lekutik bueltatu behar izaten gara. Askotan Interneten begirutzen dugun zer nolako itsasoa dagoen (...). Kirol honek harrapatu egiten zaitu. Txikitik gurasoekin Oriora joaten nintzen. Han ikusi nuen surfia lehenengo aldiz. Handik urte batzuetara, surf taula txikia oparitu zidaten eta zaletzen hasi nintzen (...). Ez da hain kirol garestia, merkea ere ez den arren. Garestiena da itsas aldera joan beharra, eta autoan hainbat buelta eman beharra (...). Ikasteko sekretua da ordu asko sartzea. Horrez gain, komenigarria da noizbehinka beste herrialde batzuetara joatea, hango olatuak hartzeko”

EGOITZ UNAMUNO
ARRASATE IRRATIA/04-10-19

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Zabalo



Ikusten dudana

Testu hau idatzi behar dudana bakoitzean, badaukat lagun egiten didan paisaia txiki bat. Mahai ondoan dagoen balkoitik ikusten dena, hain zuzen. Ez dut uste paisaia naturala denik, plaza batetara ematen du-eta balkoi horrek; ematen, etxebizitzak eta automobilak ikusten ditut soilik.

Automobilak uzteko hainbat aparkaleku dago, baina badago bat berezia, bere lerroak kolore horiz margotu dituen eta erdian gurgildun aulkian jarritako gizona duena. Hau da, elbarri-tuentzat aparkaleku bat dut hurbilen ikusten dudana.

Azken asteotan jendeak zein erabilera ematen dion aztertzen ibili naiz. Batzuei, egia esan, oso jende gutxi, ez die axola aparkalekua berezia izatea eta ohiko aparkaleku bat balitz moduan erabiltzen dute. Ingurua autoz beteta egon ohi da, eta toki librerik ez egoteak jendea horretara bultzatuko du agian.

Beste batzuek, berriz, auto normal batendako tokia uzten dute, baina ez dira konturatzen, agian, hori ez dela nahikoa. Aparkaleku hori normala baino zabalagoa da, autotik irteteko kontortsionismoa ezin dutelako egin eta beharbada gurgildun aulkia beharko dutelako. Leku gutxi uztea lekuri ez uztea bezala da.

“Aparkaleku hori normala baino zabalagoa da, autotik irteteko kontortsionismoa ezin dutelako egin”

Egia esan, oraintxe bertan, aparkaleku hori libre dago, libre dagoen bakarra da gainera. Esan behar dut normalean erabiltzaileek errespetatu egiten dutela.

Behin galdetu zidatenean Arrasateko erdialdean non aparkatu zitekeen -horrelako aparkalekuak erabiltzen dituzten lagunak ziren-, nik Arrasateko Musika Eskolaren albokoa aipatu nien. Eskertu zidaten, baina euren dako urrunegi zegoela erantzun zuten, eta beste zerbait nahi zutela aditzera eman zuten. Orduan konturatu nintzen ikusten dudana zein garrantziko den.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantza Lagunilla
Izaskun Bollnaga
Natali Martinez
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Maidar Arriaranen lanak moda azokan

Joan den asteburuan moda azoka egin zuten Iruñean, eta bertan izan ziren euskal diseinugile gazteak; tartean, arrasatear bat: Maidar Arriaran.

Diseinuaren munduan lau urte daramatzen arrasatear gazteak oraingo denboraldirako eginiko arropak azoka erraldoian erakutsi zituen, eta baita saldu ere. Maidarrek Gasteizen egin zituen diseinu ikasketak, eta ikasketak amaitu zituenetik bere kasa ibili da arropak egiten. Azoka amaitutakoan arrasatearrak balorazio positiboa egin zuen, jendearekin harremanetan jartzeko aukera ona izan da-eta.

Giokela Jaian gura beste haragi saldu zuten


Zapatu arratsaldean egin zuten Herriko Plazan Giokela Jaia, eta beste behin, arrasatearrok erakutsi dute haragijale amorratuak direla, 800 saiheski pintxo saldu zituzten-eta.

Haragia gustuko izanda ere, egia da primerako okela zela, eta pintxoak behar den moduan prestatuta zeudela. Hala ere, aurreko urteotan baino jende gutxiago hurbildu zen Herriko Plazara; egin zuen eguraldi txarra izan zen horren erantzule. Giokela Jaian lortutako 1.200 euroak herriko dantza taldeko-
endako izango dira.

'Autoak Elkarrekin' egitasmoa

Arrasateko Udalak, Bartzelonako Compartir enpresari esker, *Autoak Elkarrekin* izeneko zerbitzua jarri du martxan. Helburua da, eguneroko bidaietan automobila erabiltzen dutenen artean ahalik eta auto kopuru gutxien erabiltzea. Jakina da arrasatear askok autoa egunero hartu eta ibilbide bera egiten dutela. Asmoa da, herritar horiek euren artean harremanetan jartzea eta horrela auto bakarrarekin joatea.

Egitasmo hori herritar guztiei zabaldu zaie: unibertsitate-
ra doazen ikasleei, herritik kanpo lan egiten dutenei...

**Salerosketa operazioa Polonian**

MCCren baitako bi enpresak, Fagor Arrasatek eta Ona Pressek, salerosketa operazio garrantzitsua egin dute Poloniako Gestamp enpresarekin. Prentsa automatiko eta prentsa hidrauliko bana saldu dizkiote Poloniako enpresari. Bi lineak txapazko estanziorako dira, Volkswagen Caddy furgonetaren fabrikazioan erabiltzeko.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Nostalgia

A skotan Putz aldzakaria agogora ekartzen dut. Hainbeste gauza ikusten ditut han jasotzeko modukoak! Hainbat gauza surrealista daude, eta ez daukagu horiek ganoraz non jaso eta dago-kion tartea eta denbora eskaini. Pena da!

Gertuko adibide bat aipatzearen, astean *La Razón* egunkariaren ale bat eskuartearen izan dut. Jakina,


azaleko goiburuek ez didate huts egin. Honako hau idatzi dute: "El Gobierno Vasco prohibirá a los niños hablar en castellano durante el recreo". Kontua da Leioan, beste herri askotan moduan, arduratuta daudela umeez eta gaztetxoek gaztelaraz berba egiteko duten joeraz. Horregatik, begirale batzuek, jokoan bitartez, umeez ohiturak aldatzeko ahalegina

egin dute. Hori da kontu guztia.

Goiburu horrek eta atzean dagoen asmo txarrak gogora ekarri didate aspaldi udaleku baten gainean idatzi zutena. Gaztelaraz berba egiten zuten gaztetxoek motxilan harriak jartzen zizkieten kontu hura. Azken finean, joko bat zen, baina testuingurutik atera zuten, betiko moduan.

Gertaeren manipulazioa surrealismoa bilakatzen denean, hobe dugu barre egitea.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

HEGO-HAIZE INDARTSUAK MONTEIRON PARKEA IXTEA ERAGIN ZUEN

Aste honetan gertatutakoaz zerbait nabarmendu beharko bagenu, egin duen eguraldia izan beharko litzateke. Urriaren erdi-bukaeran gauden arren, hego-haizeak bero nabarmena ekarri digu, sasoi honetarako ez-ohikoa edo deserosoa dena. Are gehiago, ehiztariak hain gustuko duten haize horrek

lelotu edo aztoratu egin gaitu bat baino gehiago. Haizeak zelanbaiteko arriskua ere eragin du. Izan ere, eguaztenean Monterron parkea itxi behar izan zuten. Ezagun da zuhaitz batzuk ez daudela oso ego-
era onean eta ustezko arriskua saihesteko asmoz, parkeko ateak itxi egin zituzten. /I.B.

ad **ibabe****IBABE GARAJEA****MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

MADINA ZURAK

Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Olin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

BELEN MAIZTEGI


Biteri etorbidea 13
Arrasate
Tel.: 943 08 15 44

*Domu Santu egunerako
lore-sortak, zentroak,
eta abar.*

Enkarguak hartzen dira

Tele-ordainketa

LURAK



NORK EGINGO DU BARRE ONDOEN?

Beñat Apraiz eta Nagore Arabiourrutia azaroaren 13an ezkonduko dira. Beñaten koadrilakoek, baina, zapatuan egingo diote ezkon aurreko jaia. Eta horren berri emateko argazki ederra ekarri dute ARRASATE PRESSera. Zapatuko parrandaren berri emateko horrelako argazkia ekartzen badigute, deseatzten gaude parrandan zehar aterako dituzten argazkiak ikusteko. Ahaztu aurretik, koadrila-koen mezua daukagu Beñatendako: "Orain arte gura beste barre egin duzu Beñat: Orain gure txanda da". Ez dakigu parranda hori Arrasaten egingo duten. Hala bada, argi ibili!!!



ZAHAR BERRIKO LAGUNEK BERTSO AFARIA EGIN ZUTEN, ETA TXANGOIA EGINGO DUTE LASTER

Joan den eguaztenean egin zuten Zahar Berriko lagunek Bertso afaria AEDko txokoan. Izena bertso afaria bada ere, lehenengo afaldu egin zuten, eta sabela beteta zegoenean hasi ziren bertsoan. Bertsolariak dagokienez, Arrasateko, Aramaioako eta Bergarako ordezkariak izan ziren. Jokin Labayenek, Iker Agirrek, Enaitz Alustizak eta

Iñigo Arzeluzek buruari ondo eraginda bertso borobilak bota zituzten. Ez da, baina, Zahar Berrikoek egingo duten ekintza bakarra. Datorren azaroaren 6an txangoa egingo dute. Goiz partean Ezkio-Itsason dagoen XVI. mendeko Igartubeiti baserria bisitatuko dute. Eta arratsaldean Donostia aldera joango dira.



ARRASATEKO JUDOKAK PARISEN, DENBORALDIA PRESTATZEN?

Aurreko zubian, Arrasateko Judo Taldeko lagunak Parisen izan ziren, Eibarko taldekideekin batera. Denboraldia prestatzen hasi aurretik oportetean joatea erabaki zuten, eta Disneyworld aukeratu zuten horretarako. Arrasatetik 17 lagun joan ziren, eta beste 45 lagun Eibartik. Dagoeneko hasi dituzte entrenamendu saioak, eta esan digutenez arlo fisikoa lantzen hasi dira. Izan ere, ezer egiten hasi aurretik sasoiaren egotea komeni da.



'CUARENTA PRINCIPALES'-KOEN BAZKARIA, MENDIOLAN

Juan Luis eta Aszen irailean ezkondu ziren, eta aitzakia ezin hobea izan zen aspaldiko partez Los cuarenta principales koadrilako lagunak batzeko. Egia esan, baina, argazkiko koadrila horrek Los cincuenta izena izan beharko luke, koadrila hori gero eta handiagoa da-eta. Mendiolan bazkaldu eta gero parranda galanta egin ei zuten. Esan digutenez, aspaldi ez dira horrenbeste elkartu. Hurrengo argazkian baietz hirurogei lagun elkartu.



Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Jabier Madrazo eta Inazio Lakuntza, Etxebide-Bizigune programa sinatzen.

ETXEBIZITZA/ Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Etxebide-Bizigune egitasmoa sinatu dute

Etxe hutsak alokatzeko egitasmoa abiarazi dute

UBANE MADERA

Arrasaten dauden etxe hutsak merkaturatzeko hitzarmena sinatu dute Arrasateko Udalak eta Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak. Gipuzkoan halako hitzarmen bat sinatzen duten lehenengo aldia da. Helburua da etxe hutsak alokairuan ipintzea, prezio merkean.

Arrasaten etxe hutsen bat duenak bost urterako kontratua sina dezake etxe hori prezio babestuan alokairuan ipintzeko. Eusko Jaurlaritzak Bizigune-Etxebide izeneko programa abiarazi du horretarako. Hain zuzen ere, astelehenean egitasmo hori abiarazteko hitzarmena sinatu zuten Arrasateko Udalak eta Jaurlaritzak; EAEn sinatzen duten halako bigarren hitzarmena da, Gipuzkoako lehenengoa.

Hitzarmen horri esker, Arrasaten etxe hutsen bat duenak 500-600 euro inguru hartuko ditu etxea alokatzeagatik. Maizterrak, berriz, 235 bat euro ordaindu beharko ditu etxe hori alokatzeagatik, betiere dituen diru-sarreren %30 baino txikiagoa izango da ordaindu beharreko alokairua. Bien arteko aldea Eusko Jaurlaritzak ordainduko du. Hala adierazi zuen Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko sailburu Jabier Madrazok.

ETXEA KONPONTZEKO LAGUNTZA

Jakinarazi zuen, baita ere, alokatu gura den etxeetan askotan berrikuntza lanak egin behar iza-

ten direla, eta horretarako laguntzak ere ematen dituela Jaurlaritzak. Hain zuzen ere, interes bariko 18.000 euro emango dizkiote etxearen jabeari. Batez ere, sukaldeak eta komunak konpontzeko ematen dituzte laguntza horiek. Gero, etxearen jabeak etxea alokatzeagatik hilero jasozten duen kopurutik zatitxo bat kenduko diote eman dioten dirulaguntza bueltatzen joateko.

ESKATZAILEEI DAGOKIENEZ

Jabier Madrazok jakinarazi zuenez, Etxebiden izena emanda

duen arrasatearrekin berba egin ostean, 287 lagunek adierazi zuten gertu daudela Etxebide-Bizigune programan parte hartzeko.

HILABETE BARRU ABIARAZIKO DUTE

Etxebide-Bizigune egitasmoa Arrasaten abiarazteko, Arrasateko Udalak udalerrian dauden etxebizitza hutsen errolda egingo du, eta langile bat ere ipiniko du programan parte hartzeko interesa dutenen izenak-eta hartzeko. Hilabete inguru barru abiaraziko du ekimena Udaleko Garpunen Estrategikorako Sailak.

Zenbait datu, labur

Etxebide-Bizigune programak eskaintzen duen zerbitzuan parte hartzeko, Etxebiden izena eman beharra dago. Gero, dauden eskaeren artean, Bizigunekoek alokairuko etxebizitzak esleituko dituzte, irizpide zehatzen arabera: batetik, eskaintzen den etxebizitza bat etorri behar du eskatzailearen ezaugarriekin; maizterrak ordain dezakeen alokairua ere kontuan hartuko dute; eta bukatzeko, antzinakotasuna kontuan hartuko dute, hau da, Etxebiden zenbat eta lehenago izena eman, orduan eta aukera gehiago alokairuzko etxebizitza bat lortzeko. Arrasaten 287 lagunek egin dute eskaera etxea alokatzeko. Eta Estatistikako Institutu Nazionalak emandako datuen arabera, Arrasaten 300 etxebizitza daude alokairuan ipintzeko moduan. Halako etxeen %35ak berrikuntza-lanak egiteko beharra du. 18.000 euro ematen ditu Jaurlaritzak, lanak egiteko, interes barik bueltatzeko.

Etxea alokatzeko orduan, jabeari batez beste 560 euro ordainduko dizkiote hilero; berriz, maizterrak dezente gutxiago ordainduko du, (batez beste 235 euro), eta sekula ez du ordainduko dituen diru-sarreren %30 baino gehiago.

Lagun Arok sukurtsal berria inauguratuko du

UBANE MADERA

Lagun Aro aseguru etxeak sukurtsal berria zabalduko du Arrasaten. Datorren astean inauguratuko dute. Helburua da arrasatearreko eta oro har bezeroekiko gertutasuna areagotzea. Hori lotzeko, besteak beste, ordutegia handituko du Lagun Arok.

Otalora kalean zabalduko du Lagun Aro aseguru etxeak lokal berria. Xabier Yaniz zuzendariak zera adierazi digu: "Arrasaten dugun lider-postua finkatzeko, gure bezeroei eta arrasatearrei galdetu eta gero eta eurengan pentsatzen erabaki dugu sukurtsal berria zabaltea".

Sukurtsal berri hori modernoagoa izango dela esan digu Xabier Yanizek. Baita arrasatear guztiendako zerbitzuak emango dituztela ere, bereziki, ekonomia partikularretan espezializatuta.

LOKAL BERRIKO ALDAKETAK

Hori guztiori lortzeko, lokalez aldatzeaz gain, bestelako aldatketak ere egingo ditu Lagun Arok. Esaterako, ordutegia handitu egingo dute, eta 19:30ak arte zabalik izango dute bulegoa. Era berean, sukurtsal berrian pantailak ipiniko dituzte, informazio orokorrarekin; gainera, bulegora doazen gurasoek egin beharrekoa lasai egin dezaten, umeendako txoko bat ipiniko dute eta horrekin batera, areto konfidentzial bat izango dute, bezeroak hala eskatuz gero erabiltzeko.

Xabier Yanizek Otalora kaleko aretoaren ezaugarri estetikoak ere nabarmendu nahi izan ditu: "Konfiantza eta gardentasuna ikusteko aukera izango dugu lehen begiradan, dena kristala baita.

Bulego berria zabalitzen dutenean, ordutegia handitu egingo dute, 19:30ak arte


Martitzenean joango dira langileak bulego berrira; eguaztenean inauguratuko dute

Barruko aldean, berriz, kreatibitatea sumatzen da, bai eraikinean baita dekorazioan ere".

Zazpi lagunek jardungo dute lanean Otalorako sukurtsal berrian. Datorren martitzenean, hilak 26, joango dira bulego berrira eta hurrengo egunean inauguratuko dute.

HISTORIA APUR BAT

Lagun Aro enpresa 1984an sortu zen, Arrasaten. 1988ra arte Lagun Aro Mutuan izan zen, Olandixon. Lau urte geroago Iturriotz kaleko lokalera aldatu zuten negozioa; gaur egunera arte. 20 urteren ostean eta lehen sukurtsala zabaldu zutenetik, Lagun Aro Aseguruak dezente handitu da. Gaur egun 65 sukurtsal ditu Euskal Herrian; 350 lagunek lan egiten dute Lagun Aro; 250.000 bezero ditu eta 142.193.000 euroko fakturazioa du.



Hamasei urtez izan da Lagun Aro Iturriotz kaleko bulegoan.

Datorren udan bukatuko dituzte anbulatorioko berritze lanak

UBANE MADERA


Hirugarren solairuko lanak amaitu eta gero, bigarren solairukoak egiten hasiko dira anbulatorioan. Horren ostean lehenengo solairua berrituko dute eta gero behekoa. Besteak beste, igogailu berria ipiniko dute. Datorren urtean bukatuko dituzte lan guztiak.

Aurten hasi dira berritze lanak egiten Arrasateko Anbulatorioan, orain dela zortzi-bederatzi hilabete, hain justu ere. Hirugarren solairuan hasi eta goitik behera joango dira eraikina berritzen. Hori da asmoa. Hala, orain arte hirugarren solairua berritu dute, kanpo kontsultendako: Anestesia, Pneumologia, Endokrinologia, Traumatologia, Erreumatologia, Digestio Zerbitzua, Kardiologia eta Erizaintza. Dermatologia saila ere lekuz aldatu dute eta antzinako ospitalearen bigarren solairura eraman dute, Endoskopia probekin eta Tokoginekologia, Otorrinolaringologia eta Oftalmologia sailekin batera.

IGOGAILU BERRIA

Kudeaketako zuzendari Koldo Otxandianok adierazi digunez, goitik behera berritu dituzte anbulatorioaren hirugarren solairuko kontsultak eta hala egingo dute anbulatorioko gainontzeko guztiekin ere. Arrasateko Anbulatorioak berritzeko behar handia zuela-eta lan horiek egiteko eskatu zuten Arrasateko arduradunek.

Egingo dituzten berritze lanen artean, Koldo Otxandianok gaineratu digu igogailu berria ipiniko dutela anbulatorioan: "Gaur egun igogailu bakarra dago, eta pazienteen joan-etorri handia dagoenean edo igogailua matxuratzen denean, arazoa da erabiltzaile askoren-



XABIER URTZELAI

Kudeaketako zuzendari Koldo Otxandiano ordenagailu berria erakusten.

Goitik behera berritu dituzte hirugarren solairuko kontsultak

Egingo dituzten berritze lanen artean, igogailu berria ipiniko dute

dako anbulatorioko gorengo solairuetaraino iristea".

URTEBETE BARRU, AMAITUTA

Bestalde, Koldo Otxandianok gogorarazi digu hirugarren solairuko lanak egiten ibili diren bitartean, anbulatorioko zenbait kontsulta Eskualdeko Ospitalera eraman behar izan dituztela eta aurre-

rantzean ere hala egingo dutela. Hain zuzen ere, esan digu orain anbulatorioaren bigarren solairua berritzen hasiko direla eta horren ostean lehenengo solairua eta behekoa egiten hasiko direla. Egingo dako aurreikuspenen arabera, anbulatorioko berritze lanak datorren urteko udan amaituko direla jakinarazi digu.



Arrasateko euskalgintza

Aitona-amonon esamoldeak batzeko ekimena abiarazita

UBANE MADERA

Gure aitona-amonon umekin erabiltzen zituzten kantuak, txisteak, onomatopeiak, esamoldeak... galtzen dabiltzala-eta, horiek berreskuratzeko ekimen berria abiarazi du euskalgintzak.

"Umeak txikiak direnean, helduok umearen neurrira ekartzeko ditugu hiztegia, esamoldeak, kantuak eta halakoak. Hain justu ere, aberastasun hori euskarak bizi-bizirik gorde du azken mendera arte. Zoritxarrez, baina, gaztelania sukalde baztererraino sartu zaigun neurrian, kamusten joan gara umei zuzentzean erabili izan dugun hizkera. Proposatzen dugun proiektuaren asmoa da umeen lehenengo urteekin lotutako tradizio hori batzea, hurrengo belaunaldien eskutara ere iritsi ahal izan dadin". Horixe da Arrasateko Euskalgintzak egin duen hausnarketa eta proposamena. Hain zuzen ere, asmo praktikoa zera da: aitona-amonon 0-5 urteko seme-alabekin erabiltzen zituzten kantuak, esa-

moldeak, onomatopeiak... batzea. Hala, lan hori egiteko egokiak izan daitezkeen Arrasateko auzo guztietako zenbait aitona-amonon aukeratu dituzte eta Gabonak bitartean haiekin elkarrizketak grabatuko dituzte, erabiltzen zituzten berbak jasotzeko.

Gero, grabazio guztiak egin ostean erabakiko du Arrasateko Euskalgintzak zer egin batutakoarekin. Helburua da aitona-amonon hiztegi berezi hori guztion eskura jartzea. Eta ez hori bakarrik, Arrasateko Euskalgintzak beste helburu bat ere badu lan horrekin: Arrasateko euskalkia jaso eta gordetzea. Hala, material guztia esku artean dutenean, zela edo hala argitaratu emango dute. Baina datorren urtean izango da hori.

Badakitzu anbulatorixuen euskeraz eitteko eskubidie daukatzule? Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!

ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA EUSKARAREN TELEFONOAN 902 194 332



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



ARTXIBOA

Domekan Kepak eta Asierrek ez dute elkarren kontra jokatu, *Tiri-k* Mondraren elastikoa defendatuko du-eta.

FUTBOLA

Behar gorrian dauden Mondra eta Aloña Mendi lehian, domekan

Bi talde horiek puntu beharrean daude, biak daude-eta sailkapenaren behealdean

XABIER URZELAI

Sailkapenaren atzealdean dauden arteko derbia egongo da jokoan domekan (Atxabalpen, 16:30ean). Bi taldeak zein egoeratan dauden ikusita, derbia izateak garrantzi txikia du.

Preferente mailan ez dago oparirik egiterik, eta gutxiago Mondra eta Aloña Mendi taldeak dauden moduan egonda. Larri egon barik derbiak tentsio handikoak izaten badira, sailkapenean bi taldeak nola dauden ikusita domekako partiduak grabatzeko

modukoa izan beharko luke. Eta horretan ibiliko dira GOITBko kamerak. Debagoieneko telebisitak 19:00etan emango du futbol partidua.

MONDRA, AURRETIK ATZERA

Mondrak aurtengo denboraldiari aurre nola egingo zion jakin barik hasi zuen Liga Txapelketa. Eta lehenengo jardunaldietan ondo erantzun zion ezjakintasun horri. Arrasatekoak bigarren jardunaldian bigarren postuan izan ziren, baina ordutik hona sailkapenean behera baino ez dute egin. Neurri handian, defendatzerakoan egindako hutsek era-

gotzi dute dituzten zazpi puntuak baino gehiago ez izatea. Kontsolazio modura esan daiteke jokari dagokionez sailkapenak ez duela erakusten Mondrari dagokion lekua. Gutxi dira, baina, horrekin kontsolatuko direnak.

Arrasateko futbol taldeak badaki domekan zelako kontrarioa izango duen aurrean. Aitor Oruetaren mutilak ez daude Mondra baino hobeto, oñatiarrak azkenurreko postuan daude-eta. Ez dira preferentean ondoen jokatzen dutenak, ezta gutxiago ere, baina lana gogotik egiten dute. Eta baliteke hor egotea domekan irabazteko gakoa.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - Irati	2-10
Billy & The Cowboys - HLB 108	2-6
AT Celaya - Betrayer	2-4
Goma 2 - Manhattan Pippol	4-1
You Know! - Dribling	11-4
Torpedo Musakola - Ekipo Aldeano	4-4
Tomahawk - La Kuadrilla	5-12
Saukelu Scream - Lasagabaster	3-1
Fuxion - AC Surcos	5-7



PARTIDUAK

URRIAK 23, ZAPATUA.

11:00: Goma2 - Ekipo Aldeano.	EPAILEAK Lasagabaster.
12:00: Torpedo Musakola - Lasagabaster.	Ekipo Aldeano.
13:00: Irati - Betrayer.	Torpedo Musakola.
15:00: Fuxion - Iriztu.	You Know.
16:00: La Kuadrilla - You Know.	Fuxion.
17:00: Billy & The Cowb. - Manhattan Pippol.	La Kuadrilla.
18:00: Tomahawk - AC Surcos.	Manhatan Pippol.

URRIAK 24, DOMEKA.

12:00: Abokajarro - AKB 108.	EPAILEAK AT Celaya.
13:00: AT Celaya - Dribling.	Abokajarro.

Deskantsua: Saukelu Scream.

HASI DIRA BALOIAK DESAGERTZEN

TALDEEK DUTE BALOIA JASOTZEKO ARDURA

Joan den astean jokatu zuten Zaldibarko Txapelketako lehenengo jardunaldia, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, Saukelu Scream eta Lasagabaster taldeen arteko norgehiagokan baloi bat desagertu egin zen. Martxa horretan jarraitzen badute Gabonetarako baloi berriak erosi beharko dituztenez, antolatzaileek jakinarazi gura dute baloia jasotzeko ardura taldeena dela, eta horrelakoak gehiago errepikatzen badira neurri hartuko dituztela. Bestalde, lehenengo jardunaldiari dagokionez, azpimarratzekoa da La Kuadrilla taldeak egin zuen lan txukuna, eta norgehiagoka horretan, Tomahawk taldeak erakutsitako jarrera eskasa. Horrez gain, Betrayerren eta AT Celayaren arteko partidua ere bero-beroa izan zen. Betrayer taldeko jokalariek batek bi partiduko zigorra bete beharko du, eta AT Celayako beste jokalariek batek abisua jaso du. Oraingo asteburuari dagokionez, ikusteko moduko partiduak izango dira Betrayerrek eta Iratik jokatu dutena eta baita AT Celayak eta Dribling-ek jokatu dutena ere.

ESKOLA KIROLA

Hasi dituzte Leintz Eskola Kirolekoen kirol ekintzak

Arrasateko ikastetxeetan eskola kirola landu duen taldea Leintz bailarako beste herri batzuetara hedatu da: Aretxabaletara, Eskoriatzara eta Aramaiora, hain zuzen. Aurtengo ikasturtean ia mila neska-mutirik hartuko dute esku. Urriaren hasieran hasi zituzten entrenamendu saioak, eta joan den astean egin zuten lehenengo jardunaldia. Jakin, baita ere, hilean behin mendira joateko ibilbideak antolatuko dituztela, ume eta gurasoendako. Domekarako, Idiazabalen Mendiko Finalista Egunerako irteera antolatu dute, eta autobus egongo dira.

SASKIBALOIA

Lehena irabazita, bigarren garaipenaren bila

Mugarri Alkesa Saskibaloi Taldeak Getxoren kantxan jokatu du oraingo asteburuan. Arrasateko taldeak badaki bizkaitarren kantxan irabaztea zer den, eta joan den urtean egindakoa errepikatzeke asmoarekin joango dira Getxo aldera. Gorka Zurutzaren mutilek joan den astean erakutsi zuten zelan jokatzeke gauza diren, orain arte ezin izan dute-eta horrelakorik erakutsi. Lehenengoa irabazita, gainera, gainontzeko garaipenak jarraian etor ditezke, Arrasateko taldeko jokalariek adituak dira-eta bolada onari eusten.

ERRUGBIA

Garagartzan izan behar du Arrasateko taldeak indartsu

Joan den astean bezala, oraingo asteburuan ere Arrasateko Errugbi Taldeak Garagartzan jokatu du (domekan, 11:30ean). Oraingoan, baina, EHU-Bilbo taldeko jokalariek izango dituzte kontrario. Talde bilbotarra sailkapenaren erdialdean dago; ez da txapelketako kontrario gogorrena, baina dagoeneko hiru urte egin ditu maila horretan. Arrasatek itxura polita erakutsi zuen joan den astean, eta horrela jarraitu behar du. Kontrarioek jakin behar dute Garagartzan irabazteko gogotik borrokatu beharko dutela.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK**FUTBOLA**

Mondra - Aloña Mendi
Preferentea. Domekan. 16:30. Atxabalpen.
Aldapetarrak - Mondra
Ohor. Gazteak. Zapatuan. 17:15. Matigoxotegin.
Arrasate CD - Urki CD
Gazteak. Zapatuan. 16:00. Matigoxotegin.
STO Lizeoa - Arrasate
Ohor. Kadete. Domekan. 10:30. Berion.
Arrasate - Mutriku
Infantilak. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.

SASKIBALOIA

Getxo - Mugarri Alkesa Arrasate
Lehen Maila. Domekan. 12:00. Faduran.
Mugarri Alkesa Arrasate - Araneta
Juniorkak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.
Gros Xake - Mugarri Alkesa Arrasate
Kadeteak. Zapatuan. 16:00. Donostian.

ERRUGBIA

Arrasate - EHU Bilbo
Seniorkak. Domekan. 11:30. Garagartzan.

ESKUBALOIA

Hegialde Auto - AGR Arrasate
Lehen Territ. Zapatuan. 19:30. Legazpin.
Arrasate - Eibar
Big. Territ. Zapatuan. 18:30. Iturripen.
Gatz Museoa - Leitzaran
Gazteak. Zapatuan. 16:30. Iturripen.
Bergara - Arrasate
Gazteak Neskak. Zapatuan. 16:15. Bergaran.

PILOTA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

Arrasate - Zumaia
Gazteak. Egubakoitzean. 19:15. Uarkapen.
Lazkano - Azaguirre
Seniorkak. Egubakoitzean. 19:45. Uarkapen.

EMAITZAK**FUTBOLA**

Preferente. Tolosa - Mondra 1-1
Ohor. Gazt. Mondra - Elbartarrak 1-1
Emakumeak. Mondra - Urki 6-0

SASKIBALOIA

Senior. Mugarri Alkesa - Deustu Loiola. 83-70
Gazteak. Mugarri Alkesa - Easo. 63-65

MENDIA

'Hiru haundixek hiru egunetan' egiteko aukera ezin hobea AEDren eskutik

Hiru eguneko ibilaldia urriaren 30ean, 31n eta azaroaren 1ean egingo dute. Izena emateko azken eguna datorren astelehena da, hilak 25

XABIER URZELAI

AED elkarteak **Hiru haundixek hiru egunetan** mendi ibilaldia antolatu du urriaren amaieran izango den zubirako. Hiru egun horietan, Aizkorri, Anboto eta Gorbeia tontorrak zapalduko dituzte, baina tontorrera igotzea baino batetik bestera joatea izango da nekezagoa.

Hiru tontor horietara igotzeko ibilaldian parte hartu gura duenak argi ibili behar du, izena emateko epea datorren astelehenean amaituko da-eta, hilak 25. Izena emateko, AEDko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 40 euro.

LEHENENGO ETAPAN, AIZKORRIRA

Lehenengo etapa Zalduondon (Araba) hasiko da. Haraino joateko, baina, antolatzaileek autobusa jarriko dute. Zapatuan, hilak 30, Arbolapetan egongo da autobusa 07:00etan. Zalduondora iritsitakoan, mendizaleek Aizkorri-rako (1.528 metro) bidea hartuko dute. Ez da ibilbideko igoerarik

gogorrena; 900 metro igo beharko dituzte. Aizkorrira igotakoan Leintz Gatzagarantz abiatuko dira, eta horretarako, Elgeako mendilerroa zeharkatu beharko dute. Gatzagan amaituko da lehenengo etapa, eta bertan egingo dute lo.

Bigarren etapako tontorra Anboto (1.331 metro) izango da, baina lehenengo Anbotoren magaleraino joan beharko dute. Horretarako, Marindik Kurtzetara egingo dute, eta Etxaguedik Zabalaundira, Anbotoren magalera. Tontorrera igo eta gero, Urkiolan amaituko dute bigarren etapa.

Eta hirugarren etapako erronka izango da Arabako eta Bizkaiko mugan dagoen Gorbeia (1.481 metro) igotzea. Urkiolatik irten, eta Barazartik igarota Saldropora iritsi eta handik ekingo diote Gorbeia igotzeari. Arrasatera itzultzeko autobusa Murun izango dute.

Zapatuan jatekoa norberak eramane beharko du, baina gaintzeko bazkari eta afariak antolatzaileek jarriko dituzte.



Aurreko zeharkaldietan esku hartu zutenek ez zuten prestakuntza berezirik egin, baina sasoiaren zeuden.

AED


Herriko pilotarien partiduak Uarkapen, gaur, 19:15ean hasita

X.U.

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, Arrasateko pilotariak pilotariak jokatu dituzte gaur arratsaldean Uarkapen. 19:15ean gazte mailakoek neurtuko dituzte indarrak, eta horiek amaitzen dutenean jokatu du Aitzol Lazkanok buruz buruko norgehiagoka.

Gazte mailako Jimenezek eta Ortiz de Mendibilek Zumaiako pilotariak izango dituzte aurrez aurre gaur 19:15ean. Arrasateko bikoteak denbora behar du maila berrira egokitzeko. Jimenezek pilotari jokatzeari utzi zion, eta orain dela gutxi itzuli berri da. Bikotekide Ortiz de Mendibil, berriz, kadete mailako pilotaria da, eta maila horietan alde handia izaten da.

Lehenengo partidua amaitu eta gero jokatu du Lazkanok Elgetako taldeko Azagirre beragarrenaren kontra. Bi jokalariek zein gorputzalditan dauden ikusita, norgehiagoka polita izango da; Lazkanok lau norgehiagoka jokatu ditu, eta bakarrik galdu du. Azagirrek, berriz, jokatu dituen guztiak irabazi ditu. Biko-



ARRASATE PRESS

Aitzol Lazkanok jokatu du gaur arratsaldeko bigarren norgehiagoka.

teka, bestalde, Arrasateko senior mailako Agirrek eta Urribarrenek Hernanin jokatu dute.


LEHENENGO PARTIDUETAN, ONDO

Senior mailako pilotariak dago kienez, arrasatearrek ondo hasi dute Gipuzkoako Txapelketa. Bikoteka, joan den astean Agirrek eta Urribarrenek 22-10 irabazi zieten Zumarragako pilotariak. Dagoeneko bost norgehiagoka

jokatu dituzte, eta bakarrik galdu dute.

Buruz buru lehiatzen dabiren Lazkano ere sasoiaren dago, udan txapelketa askotan izan da-eta. Joan den astean galdu zuen orain arteko partidu bakarra: "22-16 galdu nuen Amezketa Mintegiaren kontra. Partidu parekatua izan zen, baina kontrarioak pilota motela aukeratu zuen, eta horixe galdu nuen norgehiagoka".

FOTOKIROLA



Motor hotsa domekan, Musakolan

Arrasate Motozale Elkarteak Euskadiko Txapelketarako baliagarria den moto-kros txapelketa antolatu du domekarako. 15:00etan hasita, abiada bizian dabilen motor gidariak izango dira ikusgai Musakolako zirkuituan. Seniorrak, gazte mailakoak, juniorrak eta kadeteak lehiatuko dira lasterketan, eta bi zilindrada izango dira: 125 eta 250 zentimetro kubikokoak. Esandako moduan, 15:00etan hasiko dira entrenamenduak, eta 16:00etan izango da lasterketa. Informazio zabalagoa *Goienkaria*-n, kirol orrian. /X.U.

ELKARRIZKETA

PATXI GOIKOLEA/BERTSOZALEA

“Guraso askok ez dakite zer garrantzitsua den bertsoak egitea burmuina garatzeko”

IKER BARANDIARAN

AEDk, Axtrokik eta Lora-mendik Leintz Bertso Eskola sortu gura dute. Ekimen horren harira, gogoratu dugu Euskal Herriko lehenengo bertso eskola ibarrean sortu zutela. Patxi Goikolea eta beste batzuk ibili ziren.

Noiz eta zelan sortu zenuten bertso eskola?

1974ko otsailean sortu genuen. Zapatuetan lantokietan jai hartzen hasi ginen, eta Almenera jo genuen eskolaz kanpoko jardunaldietan bertsozale lantzeko asmotan. Horretarako, inguruko bertsozale eta bertsolariak elkartu ginen, eta gure artean ikastarotxo bat egin genuen hemengo egoera jakiteko. Egoera penagarria zen. Burdina jaten besterik ez genekien. Burdina eta altzairuan aberatsak, baina bertsozale oso pobreak ginen. Joxe Mari Errota izango zen inguruan zegoen bertsozale ia bakarra. Ez geneukan gertuko idolorik jarraitu ahal izateko. Horregatik, lanean hastea erabaki genuen eta Euskal Herriko lehenengo bertso eskola sortu genuen, gaztetxoendako. Lehenengo pausoa bertso giroa sortzea zen. Hori lortzeko, bertso zaharrak berreskuratu eta doinuak erakusten hasi ginen. Almenen propaganda handia egin genuen, irakasleekin berba egin da, eta 75 bat lagun elkartu ginen. 6 eta 9 urte bitartekoak hartu genituen. Bertsoan ikasteko adin hori aproposa iruditu zitzaigun. Haiekin lau urte ibili ondoren, konturatu ginen batzuek askoz errazago ikasten zutela beste batzuek baino.

Eta hortik aurrera, zer?

Ordura arte bertso zaletasuna bultzatzen ibili ginen. Eta hortik aurrera, bertsolariak egiten saiatu ginen. Sasoi hartan Abel Muniategi Ularcon lanean zebilen, eta hark lagundu zigun. Amurizaren *Errima hiztegia* erabili genuen. Hamar bat gaztetxo aukeratu genituen –erraztasun handiagoa zutenak– eta horiekin, 1977tik 1981era, zapaturo Almenen elkartzeari gain, egubakoitzero afalostean Santi Iparragirren baserrira edo Apotzagako elkartera joaten ginen. Mutikoekin pilotan egiten genuen, eta nekatzen zirenean, bertsoan ibiltzen ginen. Han ikasi zituzten errimak, puntuei erantzuten eta, gero, gaia jarri, gaia zelan kokatu, gaiari nondik heldu, bukaerak asmatu...

Eta jarraian ekimena Gipuzkoa osora zabaltu zenuen...



IKER BARANDIARAN

Bai, guk 1980an ikusi genuenean Almenen hasitakoak zelan funtzionatzen zuen, pentsatu genuen beste herri askotan ere antzeko ekimenak egin zitezkeela. Orduan, Gipuzkoako Ikastolen Federaziora jo genuen, eta han eskatu genien Gipuzkoara zabaltea. Hasieran hotz samar hartu gintuzten, baina egun gutxira berriro deitu ziguten oso ideia ona zela esanez. Xabier Amuriza, Juanito Dorronsoro eta beste batzuk lanean hasi ziren. Orduan eskola arteko txapelketa sortu zuten, gazteak gehiago motibatzen. 1981ean egin zen lehena Donostialdean eta, jakina, sari guztiak gure eskolakoek irabazi zituzten, abilezia handiena zuten eta. Gu, txapelketa egin aurretik, gaztetxoekin herriz herri ibili ginen. Bertsoak aurretik prestatzen genituen, gero batbatean abesten genituen itxura egiteko. Herri bakoitzeko giroa aurretik ezagutzen genuen, agurretarako eta bertso politikak egin ahal izateko. Tranpak baino gehiago, trikimailuak ziren. Are gehiago, hemengo gazteek mikrofono aurrean lotsa kentzeko ariketa mordoa eginak zituzten.

“Bertsolaria Jainkoak emandako dohaina’ esaera apurtzea lortu genuen”

“Bertso eskola abiatzeko gazteak motibatu behar dira eta propaganda egin behar da”

“1974an, oso baliabide gutxiarekin, 75 gaztetxo batzea lortu genuen”

Horretarako, entseguetan, erratza erabiltzen zuten mikrofono moduan. Mikrofono aurrean eta plazetan abesteko patxada handia beharrezkoa da, eta hori ikasi egin daiteke.

Komunikabideek ibarreko bertsolari harrera handia egin zieten. Datorren urtean, 25 urte beteko dira eskola arteko lehenengo bertso txapelketa hura antolatu zutela, eta uste dut ospatu egin gura dutela.

Lan handia egin zenuten. Zelako harrobia sortu zenuen?

Lehenengo taldea oso ona izan zen: hiru Sarasua anaia, Felix Iñurategi, Jon Iñaki Isazelaia, Arantzazu Loidi, Joseba Urkia, Danel Goikolea eta beste batzuk. Horrez gain, handik zazpi-zortzi urtera, sei neska osatutako talde bat ere eduki nuen. Haiek ere bertsoan oso ondo egiten zuten eta txapelketan ibili ziren. Baina gehienak unibertsitatera joan ziren.

Harrezkero, izugarriko hutsunea dago ibarrean. Banaka batzuk interesatuta egon dira, baina ez da jarraipen nahikoa egin, lagun batzuk saiatu egin diren arren.

Eta zergatik ez dago aspaldian bertsolari gehiago hemen?

Badaude gutxi batzuk: adibidez, Jokin Labayen, oso txikitxo zenean gurekin ibiltzen zen eta oraindik jarraitzen du, ondo gainera. Horrez gain, Manex Agirre aramaioarra ere fin dabil. Baina egia da oso gutxi daudela, eta hori oso penagarria da. Horretarako arrazoi asko egon daitezke. Batetik, irakasleek ez dituzte ikasleak motibatzen. Gure sasoiak, Xabier Amuriza ekarri genuen eta 23 irakaslerendako ikastaro bat antolatu genuen. Horri esker, horietako asko motibatu egin ziren eta ikasleekin lana erraztu ziguten. Gaur egun, hori hoztuz joan da. Ikastolen Federazioko Mikel Mendizabalek hainbat saiakera egin ditu, baina ez diote jaramonik egin. Bestetik, motibatzeaz gain, propaganda handia ere egin behar da, eta gaur egun baliabide asko daude horretarako.

Inoiz aipatu duzu bertsoan ibiltzeak norberaren buruari on handia egiten diola...

Bai, nik uste dut guraso askok ez dakitela zer garrantzitsua den bertsolari ariketak egitea burmuina garatzeko. Sasoi baten bertsolariak baserri girokoak ziren. Baina gaur egungo bertsolari onenetatik gehientsuenek unibertsitate ikasketak dituzte. Kontua da ariketa batzuk egin eta ikustea horretarako balio duen edo ez. Adibidez, txirrindulari ona izateko, lehenengo bizikleta bat eman behar zaio, eta gero ariketak egiten ibili beharko du. Bertsoekin berdina, proba egin barik, ezin da jakin balio duen. Balio dutenak, berezkoa dutenez gain, teknika ere ikasi beharko dute. Gure sasoi esana, *Bertsolaria Jainkoak emandako dohaina da*, apurtzea lortu genuen.

Zer gomendio emango zenieke AEDri, Loramendiri eta Axtrokiri bertso eskola abian jartzeko?

Asko poztu nau albisteak. Horren premia handia dago, eta oso ideia ona da hiru herrien indarrak batzea. Gazteak motibatzen eta propaganda handia egiteko gomendatuko nieke. Propaganda horretan azpimarratu behar da bertsolariak norberarendako daukan garrantzia. Horrez gain, oso garrantzitsua da zaletasun handiena daukatenekin taldeak egitea, bertsoan jarrai dezaten. Horrez gain, komeni da aurretik programa osatua egitea. Eta bukatzeko, ni 9 eta 11 urte artekoekin baino gehiago, 7 urtekoekin hasiko nintzateke.



AUKERAN

Aukeran taldeko dantzariak eskola handia dute.

DANTZA/ San Juanetan bertan behera gelditutako ikuskizuna, Amaia Udal Antzokian

Tradizioa eta egungo dantzak Aukeran taldearekin

KER BARANDIARAN

Domekan, Aukeran dantza taldeak *Izena duen guztia omen da* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Dantza tradizionala eta gaur egungoa uztartuko dituzte Edu Murumendiaraz bergararrak zuzendutako emankizunean.

Ekainaren 24an, San Juanetan, Aukeran dantza taldea Monterronera joan zen ikuskizuna egitera. Zoritxarrez, emanaldia hasi aurretik bota zuen zaparradaren ondorioz, ikuskizuna bertan behera gelditu zen, eta Udalak eta Aukeran taldeak beste egun bat adostu zituen. Domeka honetan bueltatuko dira Arrasatera, eta Amaia Udal Antzokian eskainiko dute *Izena duen guztia omen da* lana. 19:30ean izango da.

EUSKAL KULTURAREN MITOAK

Lan hori euskal kulturaren antzinako mitoetan oinarrituta dago. Euskal Herrian kristautasuna

ezarri aurreko girokoa da, hain zuzen ere. Tradizioaren arabera, kanpaien errepikak, hau da, kristautasunaren etorrera irudikatzen duen metaforak, antzinako kulturaren jainkoak desagerrarazi zituen. Baina, Aukeran taldekoen ustetan, gizakiek orain dela milaka urte bezala, izarrei eta naturari begira jarraitzen

dute, dituzten galdera guztiei erantzun bila. Horren harira, antzinako kondairak hala esaten du: *Izena duen guztia omen da*. Eta hori hartu du ardatz dantza konpainiak.

Guztira hamar lagunek egingo dute dantza domekan. Eta dantzarietz gain, bost musikariek ere hartuko dute esku.

Dantza konpainia ospetsua

Aukeran dantza konpainiak izen handia hartu du Espainiako Estatuan. Talde horren bultzatzaile nagusia Edu Murumendiaraz bergararra da. Murumendiaraz zazpi urtez euskal dantza tradizionala egiten ibili zen, eta hainbat sari eskuratu zituen. 1999an, Aukeran taldea sortu zuen, eta dantzaren arloan hainbat sari eskuratu zituen.

2001ean, Aukeranez *Sutargi* ikuskizuna estreinatu zuen Donostiako Kursaal. Horren ostean, Espainiako eta Frantziako estatuetan bira erraldoia egin zuten eta ikusleak eta kritikariak zur eta lur utzi zituzten. Jaialdi ospetsuetan esku hartu zuten eta hainbat sari eskuratu zituzten.

'Scooby-Doo', Aljeriako lan bat eta akziozko 'Catwoman'

I.B.

Asteburuan bi film ikusi ahal izango dira Amaia Udal Antzokian. Batetik, komikietan oinarritutako *Catwoman* akziozko film ezaguna; eta bestetik, gaztetxoendako, *Scooby-Doo 2: Desatado* lana.

Gaur, egubakoitza, bihar eta astelehenean, *Catwoman* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. 106 minutu irauten du, eta Jean-Cristophe Comar *Pitof*-ek zuzendu du. *Pitof*-ek eskola handia dauka efektu berezien alorrean (*Delicatessen*, *La Ciudad de los niños perdidos*...). Horrez gain, *Vidocq* filma zuzendu du.

Akziozko film horretan Patience neska lotsatiari katu-botereak emango dizkiote, eta gaizkiaren aurka egin beharko du. Pertsonaia hori AEBetako DC komiki ezagunetan oinarrituta dago.

Protagonistak honako hauek dira: Halle Berry (*X-Men*, *Monsters Ball*, *Operación Swordfish*...), Benjamin Bratt (*Planeta rojo*, *Casi perfecto*...), Sharon Stone (*La casa*, *Beautiful Joe*...) eta Lambert Wilson (*Matrix revolutions*...), besteak beste.

Bihar, zapatua, gaztetxoek euren moduko filma izango dute. 17:00etan, *Scooby-Doo 2:*

Desatado lana emango dute. Honako hau ere komikietan oinarrituta dago, eta Arrasaten emango dutena *Scooby-Doo* txakurra- ren gaineko bigarrena da.

88 minutu irauten du eta Raja Gosnell-ek (*Sólo en casa 3*, *Esta abuela es un peligro*...) zuzendu du. Protagonistak honako hauek dira: Freddie Prinze Jr. (*Aún se lo que hicistéis el último verano*...) eta Sarah Michelle Gellar (*Scream 2*...), besteak beste.


ETORKINEN GAIKORREKIA

Eguenean, urriaren 28an, *El domingo si dios quiere* filma emango dute, 20:30ean. 98 minutu irauten du, eta Yamina Benguigui aljeriarrak zuzendu du. Yamina- naren lehenengo film luzea da.

Zouina Aljeriatik Frantziara joango da bere senarrarekin elkartzeko, eta herrialde berri hori oso arrotza egingo zaio, baita senarra ere. Irratia izango da bere lagun handiena.

Protagonistak honako hauek izango dira: Fejria Deliba (*Roberto Succo*...), Zinedine Soualem (*Asterix y Obelix: misión Cleopatra*...) eta Mathilde Seigner (*Harry, un amigo que os quiere*; *Venus, salón de belleza*...).

Film horrek dagoeneko hainbat sari jaso ditu nazioarteko hainbat jaialditan.



ARRASATE PRESS

Halle Berry aktore ezagunak katu-botereak izango ditu.

LABUR

Bingen De Pedro bergararrak margolan erakusketa ipini du Arregi galerian

Opor osteko ikasturteari gogor eutsi dio Arrasateko Iñigo Arregi, eta aurrerantzean ibarreko eta oro har Euskal Herriko artista esanguratsuen lanak erakusten jarraitzeko asmoa daukala eman digu aditzera.

Joan den egubakoitzean, beste erakusketa bat inauguratu zuten. Bingen De Pedro margolari bergararrak hamabost lan erakusketa ipini du Arregi markoztatze dendan (Maalako Errabala 8). De Pedoren lanak estilo figuratibo modernokoak dira, eta teknika aldetik akrilikoak dira.

Azaroaren 19ra bitartean egongo da zabalik erakusketa hori, denda ordutegian. De Pedro margolaria ezaguna da Arrasaten, hemengo hainbat margolariri eskolak eman dizkielako.

Ohikoa den moduan, artista horren lanak ikusteaz gain, eros- teko aukera ere izango da.

BOTEPRONTUEN

Rosi Azpiazu

AMETS UMEENDAKO ARROPA

XABIER URZELAI

Rosik eta Yolanda oin dala bi urte zabaldu euen dendie, Zerrajerako etxiek bukatu eta belaxe. Rosi harrapau dogu elkarrizketarako, baiñe bere esanetan, ahiztiak egon biherko leuke erretratuak. Kostau jaku, baiñe konbenzidu dogu.

Ze saltzen dozue gehixen?

Ume txikiñendako erropie saltzen dogu gehixen. Nagusi-txuauendako erropak be badaukogu, baiñe horreik ez die horrenbeste saltzen. Esango neuke horreik erostera jentie kanpora jueten dala.

Erropa marka askokin egitten dozue lan?

Baietz esango neuke. Dendie zabalketako Valentziako ferixara juen gitzen, eta han elegidu geuen marka batzuk. Geuri gustetan jakuna erosten dogu, hori oso argi daukogu.

Gaur egun, umiek be modara doiez, hortan.

Ba bai. Lehen ez zan holakorik pasetan, baiñe oin bai. Izen be, oingo umiek ez daue gure erropa zaharririk.

Baiñe belaxe geraketan die horreik erropok txiki.

Bai, baiñe beti daukogu lehen-gusuren bat horreik erropok erre-galetako. Gauza bat da juen dan urteko erropak ibiltie, eta beste bat da aspaldiekuek ibiltie.

Esaten daue gerueu eta ume gutxiau jaixoten dala.

Neuk ez dot uste hori holaxe danik. Egunkarixetan begire ibiltien naz zenbat ume jaixoten dan, eta egunero jaixoten die umiek. Gaiñera, lagunek dauket ospitalien lanien, eta lan askokin dabituela esaten daue.

Umiendako erropak azulek eta larrosak izeten jarraitetan daue.

Bai, ondiokan be erropa klasi-ko asko dauelako. Baiñe naranja, gorrixe eta holako kolorek gerueu eta gehixau ibiltien daue.

Hartzekin beteta dauketzue dendie.



"Amak denpora luziaue egitten dau erropie elegiduten, amamak eta tiak belaxe egitten daue"

Bai, hori animalixoi asko gustetan jaku. Txakurrek eta holakuek be baeuzen, baiñe hartza elegidu geuen.

Umien ama ala tia eta amama etorten die gehixau erropak erostera?

Danetik etorten da. Argi dauna da amamak edo tiak denpora laburraue egitten dauela erropie elegiduten. Azken baten, erregalo bat egitteko asmuekin etorten die, eta belaxe erosten daue. Amak, baiñe, denpora luziaue biher dau, ze erosi hobeto pentsau biher dauelako. Azkenien, berak daki onduen umiek ze biher dauen.

Ume batei ze erregalauko zeuskio?

"Oingo umiek ez daue gure erropa zaharrak ibilli, eta modara jueten diela esango neuke"

Musikalak. Kuna gaiñien jartien dien horreik irudixok die, bueltak emuten dauenak eta musikie daukienak. Oso politte die.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Esango neuke nahiko kompleto dauela. Komertzio txikiñek dauz, baiñe zentro komertzialek erueten daue dana.

Eta ze dauko ona?

Ba, egixe esateko ez jat ezer okurririduten. Ez dogu esango politte danik, ala?

Ze falta jatzu zeuri?

Etxie!

Tranpan ibilttektan nor baittekin, zeñekin?

Richard Gere aktoriekin.

NIREBIDAIAHURA/ Mikel Castillo

Milanera / 2004ko irailan

Mikelek eta Evak ametsetako bidaia egin ahal izan dute irailean. Kontua da Arrasateko biko-teak Mercedes auto markak atera berri duen modelo berri baten promozio kanpainan esku hartu duela, eta zelako promozioa, gainera!

Mikelek Internet bidez eman zuen izena promoziozko zozketan. Estatu osoan 40 bidaia zozketatu zituzten, eta

horietako bat Mikelendako eta Evarendako izan zen: "Autoa utzi ziguten momentura arte ez nuen sinesten horrelako bidaia bat egin behar genuela, baina egiazkoa zen, eta ez zegoen autoa erosi beharrik!".

Mercedes etxeak Europa guztian 400 auto jarri zituen zozketa irabazi zutenen esku, eta bost egunean, 400 automobil horiek Milanen elkartu behar zuten: "Sekulako bidaia izan da, aberatsen moduan ibili gara-eta; hori bai, euro bakarra ere ordaindu barik. Donostian eman ziguten autoa, eta hurrengo egunean hartu genuen Zaragozarako bidea. Zaragozan bost izarreko hotel baten egin genuen lo, eta hango jatetxe famatu baten afaldu genuen, Cachirulo izenekoan.

Hurrengo egunean Bartzelonara abiatu ziren Mikel eta Eva, han elkartu behar zuten-eta Estatuko gainontzeko autoekin, baita Portugaldik zetozenekin ere: "Edozein lekutara joateko autoan geneukan GPS sistema erabiltzeko esan ziguten; oso eroso da, hotelko ateraino gidatzen gintuen". Bartzelonara iritsi aurretik Poblet-eko monasterioan egin zuten geldialdia: "Oso leku polita da, eta han bazkaldu genuen. Arratsaldean, Bartzelonara iritsi eta Arts hotelera eraman gintuzten. Etxea erosi ez duten Bartzelona futbol taldeko hainbat jokalarik hotel horretan bizi dira, atera kontuak. Etoo jokariaren Hummer auto galanta zegoen hotelaren aurrealdean. Hotelean atsedean hartu, eta ilunkeran Miro zentrorra eraman gintuzten, aurkezpen ofizialera. Han azaldu ziguten hurrengo egunetan zer egingo genuen". Eta, hurrengo zenbakian emango dizuegu horren berri.



"Autoa eman ziguten arte ezin nuen bidaiarena sinetsi"

XABIER URZELAI



Mercedes Clase A auto berriarekin egin dute bidaia Evak eta Mikelek.



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

PUB
HAIZEA



Arrasate Lehiaketetan lanak aurkezteko epea zabaldu dute

IKER BARANDIARAN

Azkeneko hamazortzi urteotako tradizioari utsita, AEDk Arrasate Lehiaketak antolatu ditu. 2005eko otsailaren 4a baino lehen aurkeztu beharko dira komiki, poesia, bertso paperak eta ipuinak.

AEDk aditzera eman du XVIII. Arrasate Lehiaketetan lanak aurkezteko epea zabalik dagoela. Honako sailetan esku hartu ahal izango da: bertso paperak, ipuinak, poesia eta komikiak, hain zuzen ere.

Lehiaketa horretan, Leintz eta Ugaran ibarretan bizi, lan egin edo ikasten duten 17 urtetik beherako lagun guztiek esku hartu ahal izango dute. Adin horretatik gorakoen mailan, berriz, Debagoien osora zabaldu dute parte-hartzea.

Derrigorrez euskarazko obra originalak eta inoiz saritu, argitaratu edo emititu barikoak izan beharko dute. Ezin izango da bi sailetan baino gehiagotan parte hartu. Bestalde, idazlanak hiru kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde bakar batetik ordenagailuz idatzita aurkeztu beharko dira.

2005EKO OTSAILAREN 4A AURRETIK

Interesatuak 2005eko otsailaren 4a aurretik bidali beharko dituzte lanak honako helbidera: AED elkarte. XVIII. Arrasate Lehiaketak. Pablo Uranga 4, behe. 20500. Arrasate.

Epaimahaia AED elkarteak aukeratutako lagunek osatuko dute, eta finalisten zerrenda apirilaren 1erako kaleratuko dute. Hala ere, behin betiko erabakia aditzera emango da apirilaren



Gazte askok esku hartzen dute lehiaketa horietan. Argazkian, iazko irabazleak sari banaketan.

20an, sariak banatzeko egingo den ekitaldian.

Saritutako lanak AED elkartearen eskuetan geratuko dira, eta beste guztiak, berriz, epaia aditzera eman eta bi hilabetera jaso ahal izango dira.

Aipatutako sail bakoitzean, adinaren arabera egingo dituzte taldeak: 1991n edo ostean jaioetakoak, 1991koak, 1989 edo 1990ekoak; eta 1988an edo aurretik jaioetakoak. Sariak ere horren arabera bereiztuko dituzte. Gaztetxoenen

lehenengo sariak 50 eta 90 euro artekoak izango dira. Nagusien lehenengokoak, berriz, 150 eta 180 euro artekoak izango dira.

Informazio gehiago behar izanez gero, jo AEDk Pablo Urangan duen bulegora.

Gazte txokoen 10. urteurrena ospatzeko, argazki lehiaketa

I.B.

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoen hamar urte bete dituzte. Horregatik, argazki lehiaketa antolatu dute. Aurkeztu beharreko lanek musikaren gainekoak izan beharko dute.

Arrasateko gazte txokoen hamar urte bete dituzte, eta hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Lehenengo aditzera eman digutena da argazki lehiaketa antolatu dutela, baina dato-

zen asteetan beste gauza asko egingo dituzte.

12-17 URTE ARTEKOENDAKO

Argazkiek musikaren gainekoak izan beharko dute, eta lagun bakoitzak argazki bakarra aurkez dezake. Dena den, 12 eta 17 urte arteko lagunek bakarrik esku hartuko ahal izango dute. Argazkien tamaina eta formatua librea izango dira (collagea, muntaketa, koloretan, zuri-beltzean...).

Interesatuak gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko dute eta gutun-azalaren atzean goitizena

idatzi beharko da. Horrez gain, gutun-azal barruan, argazkiak gain, beste gutun-azal txikiago baten egilearen goitizena, izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta argazkiaren izenburua azaldu beharko dira. Argazkiaren atzealdean, izenburua eta goitizena idatzi beharko dira.

Lanak jasotzeko azkeneko eguna azaroaren 19a izango da. Parte-hartzaileek argazkiak gazte txokoetan edo Txatxilipurdik duen egoitzan (Pablo Uranga) aurkeztu ahal izango dituzte, betiere data horren aurretik.

Txatxilipurdik azaroaren bukaeran emango du aditzera irabazlearen izena, eta berau *Goienkaria*-n argitaratuko dute.

ERAKUSKETA EGINGO DUTE

Horrekin guztiarekin batera, lehiaketaren antolatzaileek aditzera eman digute jasotako lan guztiekin erakusketa egiteko asmoa dutela. Epaia jakin bezain laster argituko dute erakusketa non eta noiz egingo duten. Baietz hainbat gazte Danbako lehiaketako zuzenekoetara argazkiak egitera joan?

OKENDOKO LUDOTEKAKOEN, FILM EMANALDIA

Datorren egubakoitzean, hilaren 29an, Okendoko ludotekako erabiltzaileek film emanaldia izango dute. 17:00etan dute hitzordua ludotekan.

TXIKILANDIARAKO BEGIRALE DEIALDIA EGIN DUTE

Txatxilipurdi elkarteak Txikilandia Gabonetako jolasparke erraldoirako begirale deialdia egin du. Izena emateko azkeneko eguna azaroaren 26a izango da. Esku hartzeko baldintza bakarra da gutxienez 18 urte beteta izatea. Hortik gorakoek ere aukera dute, jakina. Interesatuak NAREN fotokopia eta argazki txiki bat aurkeztu beharko dituzte. Txatxilipurdiren bulegoan (Pablo Uranga, 14) fitxa bete beharko dute.

EUSKAL MUSIKA TALDEEN GIDA EGIN GURA DUTE

Gaztesareak gida osatu gura du inongo diskotxerekin kontraturik ez daukaten Euskal Herriko musika taldeekin. Gida horren helburua da musika talde gazteak —diskorik argitaratu ez dutenak edo diskoetxe alternatiboekin soilik editatzen dutenak— liburuxka batean batu eta eurekin harremanetan jartzeko erraztasunak ematea. Honako helbidean eskura daiteke bete beharreko fitxa: www.musikagida.gaztesarea.net. Bestela, honako informazioa bidali beharko da musikagida@gaztesarea.net helbidera: taldearen izena, taldeki-deena, taldearen bilakera eta aurkezpen testua, argazkia eta kontaktua. Izena emateko azkeneko eguna urriaren 28a izango da.

ARRASATEKO MUSIKA TALDEAK, ADITZERA EMATEN

Astean matraka.info webguneko erabiltzaileek euren gustuko musika taldeen aldeko botoak eman dituzte. Aukeratu dituzten 40tik gora taldeen artean —nazioartekoak barne— boto gehien jaso dituztenen artean hamargarrena Anger da; hamaikagarrena, Ozen; hamabigarrena, Numen; eta hamazazpigarrena, RIP. Badirudi, zelanbait, Arrasateko musika taldeak aditzera ematen dabiltzala.

ZAHARREN ETXETIK



Ezagun da erretiratuek ortuan lan egiteko zaletasun handia dutela.

ARTXIBOA

Erretiratuendako ortuak egiteko proiektua abendurako bukatuko dute

UBANE MADERA

Erretiratuendako ortuekin lotutako gaia landu dute oraingo astean Ingurumen Sailean. Rafa Ugarte teknikariak jakinarazi digunez, ortuak egiteko Garagartzan erabiliko duten lursaila egokitu egin behar du Udalak. Hain zuzen ere, egokitzapen proiektu hori egiteko esleipena aztertzen ibili dira oraingo astean. Eta erabaki dute LKSri esleitzea. Edozelan ere, datorren asteleheneko (hilak 25) Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du behin betiko erabakia.

Hala, proiektua egin eta gero erabakiko du Udalak zer egin ortuekin. Kontua zera da: Udalak duen lursaila ortuak egiteko egokitzea oso garestia bada, Udalak ez duela orturik egingo. Lursaila ortuetarako egokitzeko, harribetak eta halakoak egin beharko dituzte.

80 METRO KOADROKO ORTUAK

Lehen esandako moduan, ortuen egitasmoa abiarazteko Garagar-

tzako lursail bat erabili gura du Udalak. Hain justu ere, Arteaga baserrirako bidean ezkerretara dagoen 10.000 metro koadro inguruko lursaila dute horretarako gordeta. Lursail hori zatitu eta txukundu ostean, Udalaren asmoa da 80 bat metro koadro dituzten ortuak egokitzea. Edo-

Garestia bada ez dute egingo

Behin-behineko erabakiaren arabera, LKSki egingo du Garagartzako ortuen proiektua. Hasiera baten urrirako egon beharko luke bukatuta, baina atzerapenarekin dabilta, eta abendurako bukatuko dute. Proiektu horrek zehaztuko du, besteak beste, ortuak egitea zenbat kostako den. Prezioa garestia bada, ez dute orturik egingo.

zelan ere, egokitzapen lanek zehaztuko dute zenbat ortu lortu ahal izango dituzten eta zeintzuk izango diren ortuen ezaugarriak.

ATZERAPENAREKIN DABILTA

Ortuen egitasmoaren berri eman zutenean, Ingurumen Saitetik iragarri zuten urrian (beraz, orain) hasiko zirela ortu bat lortu gura zutenen izenak eta batzen, baina, Ingurumen Saileko buru Joseba Ugaldek jakinarazi digu atzerapenarekin dabilzala. Orain aurreikusi dute atzerapen eta guzti, abendu amaierarako bukatuko duela LKSki proiektua.

Edozelan ere, bien bitartean, Udaleko Ingurumen Saila hasi da lanean. Rafa Ugartek emandako datuen arabera, Arrasaten dauden ortuen gaineko inbentario bat egiteko informazioa batzen ibili dira, besteak beste.

ETORKIZUNA GERO IKUSI BEHAR

Bestalde, Garagartzako ortuak egiteko egitasmoa ondo ateratzen bada, aurrerantzean Arrasaten halako gehiago egitea da Udalak duen asmoa.

LABUR

Musakolako, Uribarriko eta Toki Argiko hainbat zerbitzu esleitzeko lehiaketak

Urriaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak argitaratu du Arrasateko Udalak hainbat zerbitzutarako lehiaketa publikoa deitu duela. Besteak beste, Uribarriko erretiratuen elkarteko tabernaren ustiapena; Musakolako erretiratuen elkarteko ustiapena; eta Toki Argi erretiratuen elkarteko ile-apaindegiaren ustiapena. Proposamenak aurkezteko epea azaroaren 6an bukatuko da.

Atzotik, eguena, domekara arte, Nagusi 04 azoka egingo dute Bilboko Nazioarteko Azokan

Dagoeneko, zabalik dago Nagusilan 04 azoka. Bilboko Nazioarteko Azokan ipini dute, eta aurtengoa zortzigarren aldia da. Azoka hori erretiratuei zuzenduta dago, eta batez ere aisialdia, zerbitzua eta osasun alorrak lantzen ditu. 72 saltoki ipini dituzte eta eskaintza oso zabala da. Horrez gain, azokan bertan erretiratuen gaineko hainbat berbaldi egingo dituzte.



Abaroakoak Mondragon kaperan

Irailaren erdian, Abaroa elkarteak Galiziarra bidaiara egin zuen. Lagun mordoa joan ziren eta ohiko moduan asko disfrutatu zuten. Besteak beste, Portonovo eta Santiago bisitatu zituzten. Santiagon egon zirenean, elkarteko lagun batzuek Mondragon izeneko kaperak aurkitu zuten, eta bertan *San Juan* kantua abestu zuten, herri-minak jota.

Horrez gain, Santiagon erromesen pergamino bat eman zuten. Batzarrak pergaminoaren kopia ateratu ditu. Gura duenak jo dezala bulegora dagokion kopia hartzera. /A.B.



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

EZETZASMATU



IKER BARANDIARAN

Non dago irudiotan ikusten duzuen iturria?
Arrastoa: kirola egin daiteke oso-oso gertuan.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Scottex komuneko papera
4 erroilu

1€ 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AMAIA ARANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Amaia!
Galderen erantzun zuzena:
1992an, Argi Ibili.

ARRASATEKOHISTORIA

Arrasateko bideen gaineko irakurgai (I)

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Arrasate sakonago ezagutzeko asmoarekin, herriko baserri-bideak aztertzeko parada egingo dugu datozen asteotako ataletan. Gotzon Arzelusen *Arrasateko baserri-auzoetako bideak* liburua erabili dugu lan hori egiteko. Hala, hasteko, idazleak bideen izenak aztertzen ditu; izan ere, nahiz eta gaur egungo gehienondako mendiko bide guztiak berdinak izan, bidearen ezaugarrien arabera, bide bakoitzak jatorri eta izen jakina du. Zorbideak, gurutze-bideak eta burdibideak aztertuko ditugu aurreneko atalean:

“Legearen arabera, zorbidea, zortasun (servidumbre) mota bat da, hots, eskubide erreal bat. Lehenagoko bide zaharrak herriaren eta auzoaren onurarako zabaltzen ziren, betiere, haien beharrak kontuan harturik. Horrek hainbat lurtuan jabegotatik iraganbidea egitea zekarren. Iraganbide horrek handik ibiltzeko eskubidea ematen zien herritarrei, nahiz eta inguruetan zituzten lurak pribatuak izan. Beraz, herriari zor zitzaion bide bat zen, gaurdaino eta ohituraren poderioz gorde dena”.

Gurutze-bideen gainean, berriz, Gotzon Arzelus bergara-



ARTXIBOA

Bidearen ezaugarrien arabera, bide bakoitzak jatorri eta izen jakina du.

rrak zera dio: “Horrela deitzen zaie Arrasaten baserria edo etxea eta eliza (hilerria) lotzen dituzten bideei. Bide horiek erlijio kutsu handia dute eta betidanik zaindu eta errespetatu dituzte. Izenak berak dioen bezala, gurutzearen bidea da, hildakoak prozesioan

“Gurutze-bideak dira baserria edo etxea eta eliza (hilerria) lotzen dituzten bideak”

eramateko bideak, alegia. Hala ere, Euskal Herrian hainbat izen ematen diete bide horiei: andabide (andak doazen bideak), elizbide, gorputz-bide, *camino de insignias*, *camino de anteiglesia*... Nahiz eta izen bat baino gehiago izan, guztiak zentzu bera dute, erli-

jiosoa, alegia. Bestalde, bidearen izenak esaten digu zerk eragiten duen bide-zorra, horrela, Arrasaten gurutzeak sortzen badu zortasuna, beste toki batzuetan andek edo anderoek, gorpuek eta abarrek eragiten dute. Hori dela eta, behin bide-zorra sortuta, hileta segizioak bide haietatik igarotzera behartuta zeuden, nahiz eta beste batzuetatik elizara lehenago eta erosoago heldu. Gainera, herri sinismen hedatua izanda, ustea zen txarra zela hildakoak beste bide batzuetatik eramatea”.

Bukatzeko, burbideak burdiak (gurdiak) ibiltzen diren bideak dira. “Gaur egun, hala ere, oso zaila izango zaigu burdirik ikustea, garraibide kontuetan aurrerapen handiak egon baitira. Dena den, duela zenbait urte burdia ikustea ohikoa zen, batez ere, baso eta baserri lanetan edo gauza handi eta pisudunak garraiatzen.

Bestalde, burdibideak burdientzako bide egokiak ziren, eta horretarako onena zorua harrizkoa izatea zen (neurri handi batean). Horrela, euria egiten zuenean gurpilak ez ziren lokatzetan hondoratzen, harriak handik ibiltzea errazten zuen-eta. Zenbaitetan eta antzinako trazatua gordetzen zen tokietan, lehenagoko gurpilen arrastoak ikus daitezke”.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko urriaren 22a / 126. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Datorren urtean zergek zenbateko igoera izango duten aztertuko du udalbatzarrak eguaztenean

UBANE MADERA


Datorren eguazteneko osoko bilkuran zergen igoera aztertuko du udalbatzarrak. Gogoratu beharra dago aurreko urtean ez zutela igoerarik ezarri herriko zergetan.

Datorren urterako Ordenantza Fiskalak proposatuko dizkiote Ogasun Sailak eta alkatezko udalbatzarrari datorren eguaztenean. Edo bestela esanda, 2005ean udal zergek izango duten igoera zenbatekoa izango den erabaki beharko du udalbatzarrak.

BERRIKUNTZAK IZAN DIRA

Besteak beste, ibia, obren tasak... errebisatuko dituzte, zerga horiekin lotuta, aurtan hobariak onartu dituzte-eta. Adibidez, zailtasunak dituztenendako hobariak onartu dituzte zenbait zergatan, familia-ugariendakoak ere onartu dituzte... Horiek guztiak dagoeneko aplikatu dituzte Aramaion, baina nahi dutena da legez egitea, ordenantzetan jasotzea, alegia.

Eta, jakina, horrekin batera, zergen datorren urteko igoera orokorra eztabaidatu eta erabaki beharko dute zinegotziek. Normalean, igoera hori Kontsu-



ARTXIBOA

luz Udalak ez zuen zergarik igo, ez zuelako beharrezko txosten ekonomikoa aurkeztu.

mo Prezioen Indizearen (KPI) arabera egiten da. Eta Aramaion ere hala egingo dute.

Baina Aramaioren kasuan bada aipatu beharreko beste pun-

tu bat ere: iaz ez zutela zergarik igo. Kontua da Aramaioko Udalak herritarrei ematen dien zerbitzua defizitarioa dela gaur egun. Hau da, Udalak dirua galtzen due-

la herritarrei emandako zerbitzuengatik. Hala, horri buelta emateko, iaz erabaki zuten apurka-apurka zergak igotzen joatea, defizita ezabatu, Udalak ematen

duenaren eta batzen duenaren artean parekotasuna lortu arte. Baina hori egiteko Udalak txosten ekonomikoa bat egin behar zuen. Ez zuen halakorik egin. Eta horren ondorioz, zergak ezin izan zituzten igo.

Aurtan, berriz, txosten ekonomikoa hori egiten dabilta eta datorren eguazteneko osoko bilkuran aurkeztuko dute. Hortaz, aurtan hasita, Udala apurka-apurka zergak igotzen hasiko da.

BESTELAKO GAIAK

Ordenantza Fiskalez gain, bestelako gaiak ere landuko ditu udalbatzarrak. Esaterako, Emilio parrokoak dirulaguntza eskatu dio Udalari. elizan lan batzuk egiteko, tartean, bergailua ipintzeko.

Bestalde, Diputazioak deialdia egin du errepideak konpontzeko dirulaguntzak eskatzeko. Zein eskaera egin aztertuko dute zinegotziek. Eta bestelako gaien artean, udaletxean egiten dabil-tzan lanekin lotutako puntu bat ere landuko dute.

Esandako moduan, batzarrak eguaztenean izango da, ohikoa den moduan, 18:00etan hasita. Dauden gaiak ikusita, seguru aski luze joko du, gainera.



'Berria'-ren aldeko laguntzarengatik epaiketa, laster

Azaroaren 3an bi epaiketa ditu Udalak Gasteizko Auzitegi Probintzian. Bata Berria-ri 1.500 euroko laguntza emateagatik (1.000 euro akziotan eta 500 dirulaguntza moduan). 13:30ean izango da. Bestea Oletako partikular batekin lursail batzuk direla-eta duen desadostasunarengatik. 12:00etan izango da bigarren hori. Bestalde, preso-aren aldeko pankarta erosi eta garraiatzeagatik Aramaioko Udalari ipini zioten salaketa bertan behera geratu da, forma kontuengatik.

LABUR

Arkitekto eta aparejadore berriak Udalean

Laster arkitekto eta aparejadore berriak izango dira Udalean, Alberto Mendietaren eta Xabier Berridiren lekuak betetzeko. Hain justu ere, oraingotik behin-behinerako langile bi hartuko dituztela adierazi digu alkateak, Udalaren jardunean etenik ez izateko. Eta aurrerago lehiaketa publikoa deituko dutela lanpostu biak betetzeko. Asmoa da oraingo astean bertan lortzea behin-behinerako langileak. Dena dela, ez da erraza izango, eskaintzen dutenak da-eta egun osorako lana.


Bizkaitarrak nagusi Itur Zurik antolatutako margo-lehiaketan

UBANE MADERA

Itur Zuri Emakume Elkarteak oso balorazio positiboa egin digu aurtengo aire libreko margo-lehiaketaren gainean. 45 margolarik parte hartu dute. Esan digutenez, batzuk Euskal Herri kanpotik etorri ziren Aramaioara; Santandertik, esaterako.

Bitxikieria moduan, esan beharra dago aire libreko margo-lehiaketako garaileak, nagusien mailan, bizkaitarrak izan zirela hirurak. Guztira, 31 lagunek parte hartu zuten. Eta haien artean, irabazlea Jon Idigoras ermuarra izan zen, bigarrena Jose Migel Arranz astrabuduarra eta hirugarrena Karmen de la Fuente bilbotarra.

Gazteen artean, berriz, 14 gaztetxok parte hartu zuten. Maila horretan ere bizkaitarrak izan ziren nagusi, baina aramaioar batek ere izan zuen zeresana: Raquel Ruano barakaldoarra izan zen lehena, bigarrena Maider Aldai aramaioarra eta hiruga-



Lehiaketako garaileak pozik, Aramaion irabazitako sariarekin.

rrena Javier Ruano bilbotarra. Esan beharra dago Ruanotarrekin ere gauza kuriozosa gertatu zela; izan ere, aita-ama eta semea eta alaba, guztiak aurkeztu ziren

Itur Zurik antolatutako aire libreko margo-lehiaketara.

Parte-hartzeari dagokionez, antolatzaileek adierazi digute urtero moduan dezente handia

izan den arren, aurtengo, nagusien mailan iaz baino aramaioar gutxiagok parte hartu dutela.

BIHAR ERE ZABALIK

Bestalde, iragarritako moduan, oraingo astean, margo-lehiaketako zenbait margolaran erakusketa zabalik izango da Sastiñan, bihar arte (zapatua). Hain zuzen ere, bihar, 12:00etatik 14:00ak arte izango da zabalik. Ikusteaz gain, margolaran erosi ahal dira Sastiñan.

HERRITARREK IKUSTEKO

Eta erakusketa itxi ostean, saldu ez diren margolaran egileei bueltatuko dizkiete Itur Zurikoek. Irabazleenak izan ezik. Urtero moduan, herriko zenbait lekutan ipiniko dituzte haien margolaran. Herriarrek ikusteko moduko lekuetan, hain zuzen: bat edo bi udaletxean, medikua-ren kontsultan beste bi-edo, Pakiren landa-turismoan (Murun) erakusketa ipiniko dute eta gainontzeko margolarandako lekuri aurkitu ezean, lokaletan ipiniko dituztela esan digute.

BOTEPRONTOAN/ Pedro Lizarralde · Zalgoko auzo alkatea

“Gasa nahiko ondo dago, baina beste gauza guztiak aztertu eta berritu egin behar dira”


Gaztetan Arrasaten eta Aretxabaletan bizi izan ostean, orain Aramaion bizi da Pedro Lizarralde. Zalgo auzoan. Orain dela 30 urte. Gaur egun auzoko alkatea da. Sagar artean aurkitu dugu, Emaldi baserrian:

Lehenengo aldiz auzo alkate?
Ez. Aspaldi ere izan nintzen. Aurreko agintaldian ez, orain bi eta hiru agintaldi direla izan nintzen.

Lana ondo egingo duzu, bada, berriro zeu alkate aukeratzeko?
Ez dakit. Ahaleginak egiten dira. (Barre)

Datozen urteotan egiteko handia aurreikusten duzu auzoan?
Hori da betikoa. Nahi baduzu lana badago, ez baduzu egiten ezer, esan daiteke ez dagoela lanik. Hemen lana dago soberan. **Lan horien artean, zeintzuk dira behar nagusiak?**

Kenduta gasa, nahiko ondo dagoela, beste gauza guztiak aztertu eta berritu egin behar dira. Urarekin, adibidez, lehen oso txarto genbiltzan, eman zitzaion behin-behineko konponbidea, baina gaur egun arazo dezente ditugu. Batzuetan ura ondo etortzen da, baina beste batzuetan oso presio txikiarekin etortzen da. Argia joaten bada ur barik geratzen gara... Irtenbide-



“Auzorako ganorazko proiektua dagoenean hasiko gara diru bila edo behar dena egiten”

ren bat behar dugu. **Lehenbailehen nahiko duzue...** Bueno, ur faltan ez gaude. Baina zerbitzua ez da ona. Hortaz, hori konpondu egin behar da. Presak ere ez dira onak, baina, behintzat, proiektu bat izan behar da, gauza guztietan moduan.

Hortaz, Ibarrik horren gertu egoteak ez dizue erraztasunik ematen?

Gure auzoa dezente berezia da horretan. Izan ere, guk auzoan dugu kaleko ur-biltegia, kanposantua eta gas-biltegia... Baina gero arazoak ditugu urarekin... Saneamendua ere egin barik dugu, nor bere putzu beltza du. Hortaz, ura da arazo bat, saneamendua beste bat, argiarendako orain dela urte asko egindako instalazioa dugu eta ez da egokia oraingo beharretarako; hortaz, horrekin ere arazoak ditugu. Auzoko baten batek

Auzo alkateek egin beharreko funtzioak, lana-eta finkatzea nahiko luke Pedro Lizarraldek

etxetresna elektriko bat martxan jartzen duenean, argiaren indarra jaitsi egiten da.

Zelako harremana duzue Udalarekin?

Orain dela bi hilabete egin genuen berba eta esan ziguten proiektuak badaudela... Baina esan genien ganorazko proiektua prestatu behar dela. Izan ere, Udalean ideia orokorrak dituzte. Era berean, auzokoei emango diegu iritzia emateko aukera. Eta ganorazko proiektua dagoenean hasiko gara diru bila edo behar dena egiten.

Bai, Udalak diru arazoak ditu...

Bueno, gauza batzuetarako ez dago arazorik, dirudienez. Auzoetan bai, auzoetan beti daude arazoak.

Zalgo auzo garrantzitsua izan zen antzina, ezta?

Bai. Oraingo kanposantuko paretak ziren elizako paretak. Azkenean eliza jaitsi zen behera. Gainera, Aramaioko lehenengo baserrien artean, hemen zegoen bat.

Kezka bat ere baduzu...

Bai. Argitu egin beharko litzateke zein den gaur egun auzo alkateen lana: zertarako dauden, zer egin beharko luketen auzo alkateak ez daitezkeen soilik mandatariak edo pertsona sinbolikoak izan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Bostika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erizaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Corutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Sabiltzaleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan delitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Komedia aukeratu dute gaurko zinema saiorako: Charles Chaplin zuzendari eta aktorearen *El Gran Dictador* filma emango dute, herritutako bertsoian. Besteak beste, Charles Chaplinek berak, Jack Oakiek, Reginald Gardinerekin eta Henry Daniellek parte hartzen dute 124 minutuko komedia horren aktoreen zerrendan. Adolf Hitler nazia irudikatzen du oso komikoki Charles Chaplinek film horretan.

ERRETIRATUEN EGUNEKOA

Hasi dira Erretiratuen Eguneko azokarako salto-kien zerrenda egiten. Jakinarazi digutenez, dagoeneko 20 bat lagunek eman du izena. Dena dela, oraindik ez dute erabakirik hartu, herriko saltzaileei lehenasuna eman gura die eta Udalak. Hortaz, izen guztiak batu ostean erabakiko dute zerrenda. Datorren astean. Bestalde, herenegun, eguaztena, ipini zituzten salgai herri-bazkarirako txartelak: auzo alkateek izango dituzte; baita Vital Kutxan, Euskadiko Kutxan eta udaletxean ere.

ERRETRATUZAHARRA

Arrasatera
etortzen zen
esneduna

XIX.mendearen amaiera aldera eta XX.mendearen hasiera aldera zaldiz tiratutako gurdiek ibilgailu motordunei eman zieten txanda. Horixe irudikatzen duen argazki zaharra ekarri dugu oraingo astean. *Aramaio eta Arrasate, historiak lotutako bi herri* liburuaren arabera, Aramaio-Arrasate joan-etorriko irabazpidean gehien nabarmendu zena Jesus Jauregi aramaioarra izan zen; baina ez zen izan autobus zerbitzurik izan zuen aramaioar bakarra. Beste bat ere bazen: Jose *Manzano* Mendialdua. Argazkian, eskuinaldean agertzen dena da. Argazkia Portaloian esnea saltzen zebilela aterata dago. Kontua da jendea garraiatzeko *norgehiagokan*, Jauregik atera ziola abantaila eta *Manzano*-k esnea aukeratu zuen, gehienbat, bere garraio-zerbitzuaren ardatz nagusi, eta autobusa kamioiarengatik aldatu zuen. Eta ez zitzaion batera txarto atera:

"Dimentsio desberdinetara igo zuen negozia eta ia egunero ia 1.500 litro



saltzen zituen Arrasaten. Horren eskaintzari eutsi ahal izateko, bere behien esneaz gain beste baserri askotako ere baliatzen zen, eta formula horrek buruhauste franko ekarri zizkion, esnearen nolakotasunei

eusteko sofistikaziorik handiena *freskerie* zen garai haietan. 1950. urte inguruan litro bat esne bi pezetatan saltzen zuen *Manzano*-k Arrasateko kaleetan, eta bezeroek lapikoa eskuetan itxoiten zioten, kamioiaren

klaxonak une batetik besterako helduera noiz abisatuko zain".

Argazkia eta informazioa: *Aramaio eta Arrasate*, herriak lotutako bi herri.

Urtea: Joan den mendearen erdialdea.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garagartza,
orain dela ia
ehun urte

1997an atera genuen ARRASATE PRESSen argazki zahar hori. Orduan, baina, *Foto zaharra* atalean argitaratu genuen. Garagartzako plazatik ateratako bi argazki horien artean ia 100 urte daude, eta Arrasateko auzo hori asko aldatu da urte horietan guztietan. Argazki zaharra *Album gráfico del País Vascongado* liburutik dago aterata.



≈ 1910

Liburu horretan deskribatzen dute garai hartan zelakoa zen Arrasate. 4.706 biztanle zituen orduko Arrasatek.




2004

Argazkiak Patxisena baserriaren aurrealdetik daude aterata. Baserriek bere lekuan jarraitzen dute, baita goialdean dagoen San Migel elizak ere.

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



EGUZKIGRAF

inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4

Tel.: 791844

Faxa: 792941

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Aretz

taberna

"Oilaskoak eta
paellak eramateko"

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA



PROFESIONAL *liberalak*

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxe: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behe. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxe: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartea, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxe: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA

BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxe: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA


Zerkaosteta 17 behe
Tel.: 943 79 67 78/ Faxe: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BITART

Larraitz Ugarte Maidor Morras

Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORONA NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT